

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Martin Balerdi Gorostegi*

*Tolosa,  
Gipuzkoa  
(1924)*

Aurkibidea



## Biografia



Bedaioko Elizetxe baserrian jaioa da Martin. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama berriz, Amezketarra. Ama artzain baten alaba omen zen, eta beraiek ere beti eduki omen zituzten ardiak etxean. Bederatzi senidetan gazteena zen bera, baina ez omen zen hori inolako abantaila lanerako libratzeko garaian, beti izaten baitzen lanen bat berarentzat: ardiak zaintzea zela, apaizari meza ematen laguntzea zela... 17 urterekin morroi joan zen Legazpira lanera, Patrizio Etxeberria aberatsaren langile gisa. Soldadutzatik itzuli zenean paper-lantegi batean hasi zen lanean, eta hura itxi zutenean beste batean jarraitu zuen, lan berean, handik erretiroa hartu zuen arte. Azken urteetan Alegian bizi izan da.

## Zintak

### TOL-014

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-03-31
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. Martinen umetako egun bat

- **Erref:** TOL-014/004
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

### Laburpena:

<p>Martinek aitarekin egiten zuen lo. Berak izendatzen zizkion eguneko lanak. Goizekoak: oiloei jaten eman, meza lagundu, dotrina ikasi auzoko emakume batekin. Arratsaldean, goizean ikasitako dotrina galdetzen zieten. Etxera itzulitakoan baserriko lanak zituen zain: ardiak, oiloak eta abar.</p>

### Transkripzioa

- Nik, nere lana izaten zan, goizen, jeiki. Aittekin itten nun lo, aittekin batera, ohi baten itten gendun. Aittek esaten zin: "Tira, Martin, muittu hai, lanak itteko zerek eta". Beno. Goizen jeiki ta jarriko ziten kafea o kafesnea o jarriko ziten. Ezta? Eta gero esango ziten: "Beira, oain oillo-etxea jun behar dek". Oillo-etxea izaten zan hemendi larehun bat metro inguru izaten zan oillo-etxea. "Oain oillo-etxea". Ta hure. Goizen jun, txuloa irekitzen nien oillori, jana ematen nien ta etxera etortzen nitzen. Ta etxera etorri ta gero hurrengo lana izaten nun, ba, esaten zin: "Zeak esan dik, apaizak esan dik meza laguntzea juteko". Ta meza-laguntzaillea neoni bakarrik neon, beste mutillek alde in zuen aurretik zerenak, eta meza-laguntzen. [...] goizetan hola. Zazpitan eo zazpi t´erdik, zortzitan izaten zan meza, ta hola, geo meza laguntzea. Gero etortzen nitzen etxera handik. Etxera etorri ta ogi-kozkorren bat´e jango nun, hola. Ta geo dotriña ikastea. Dotriña. Beatzitako, e? [Goizen] beatzitako dotriña ikastea juten [giñen]. Ta han zeon emakumezko bat, ez zun titulue, ez zan maestra, ez zan... baiño zaletue zan umeri eakusteko zea; beak zekin guzia erakusten ziun. Guri moldezko letra harrek erakutsi ziun. Bai. Eskribitzekoa ez, e? Hori ez zekin.

- Moldezkoa.

- Moldezkoa. Moldezkoa esaten diou /esateyou/ ba liburuei, liburuko letrea da moldezko... Hori jakingo dezu /jakingozu/, noski. Bai. Ta han, han ikasi gendun; dotriñek eta danak, handik ikasi giñun. Bai. [...]

- Nun ematen zenduen hoi?

- E?

- Nun ematen zizkizuen...?

- Hantxe bertan. Hantxe bertan, dotriñetxen.

- A!

- Dotriñetxea esaten [giñekiun], dotriña emateko etxea zeon, lekue, kuartoa zeon.

- Elizan bertan?

- Ez, ez, aparte zeon hoi, zimitoriyon. Beste gauza gehio´re... billerak eitteko, elizeako zerbait behar zanen eo hau zala eo segizioak eta gauzak eta bakarren bat hiltzen zan garaien... Gero ardoa ta ogie´re ematen [zien], berriz, mezeta juten zienantzat eta biltzeko etxe hoik hola zien. Bai. Hola zien kuarto hoik. Bai. Gero, hangoa eitten gendun, etxera juten giñen hamabitan ateata, ta bueno. Geo, ba, aatsalden berriz´e juten giñen ordubateako, eo ordubitako. Jarri ordubitaa, bai. Ordubitako juten giñen ta ordubitan juten giñen ta goizen ikasi genduna aatsalden galdetzen ziun, sailleen jarrita, dotriñe, ta bakoitzek erantzuten gendun. Ta ez bagendun ikasi, ez gendun erantzuten. Ta esaten [zun]: "Ez dek ikasi, e?" ta "Ez dek ikasi" ta, bueno, ba "Biharko ikasi, e?" ta hola. Gero, hala, atsaldeko hori ein ta geo etxera etortzen giñen, ta etxekokin baten ardi ta oillo ta... itzulen ta... E? Ganauen itzulen ta danen ibiltzen giñen, ta bueno.

## 2. Euskarazko bi dotrina mota buruz ikasi

• **Erref:** TOL-014/006

• **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:14:04

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

**Laburpena:**

<p>Bi dotrina mota ikasten zituzten, bata erdarazko hitzez betetako euskarazkoa eta bestea euskara garbikoa. Biak eraman zituen ikasita Martinek (buruz esaten ditu pasarteak), eta apaizak komunioa eman zion azkenik.</p>

**Transkripzioa**

Apaiza han zeon, silloi haundin eserita, han zeon jarrita, holaxe. Maestrak esaten zion... Esan zion: "Aaa! Nerekin ikasten ibilita, ikasi ez duna, hemen komulgatuko ez dala-ta nola utzi dezu?", hola. Eta apaizak esan zion zeai, maestrai esan zion: "Ea, galdetu, dotriña galdetu ea badakin o ez dakin zerbait", dotriña luzea izaten zan! Eta hola. Eta maestrak esan zion: "Nik honi galdetzen hemen aritzen naiz hola, baiño ez al da hobea... jakin behar dezuna /behazuna/ zu zea ta zuk galdetzea?" esan zion, apaizai esan zion, "Zuk galdetzea ez al da hobea?". Ta, bueno, ba, Hala, jarri giñen mahaien. Hartu zun liburue, dotriña hartu zun, ta esan ziten "Nor da Jangoikoa?" esan ziten, ta "Dago gauza bat pentsatu ahal litekean baino eszelentegoa, [...] jaun bat da [...] poderoso, sabioa, justoa, printzipioa, fiña ta gauza guziena". Hori erantzun nion hola. Ta "Aa". Bi ikasten ari giñen. Hoi erdie erderaz zun horrek. Antzemango ziozun. Hoi lehen... zahar-zaharra, aurreneko dotriñe zan ta. Ta bigarrena zan, zea, euskera bizigon ateatakoa zan bigarren dotriñe, bai? Ta esan zion zeak "Ikasten ari danai zuk galdetuiozu" apaizek esan zion maestrai hola. Ta esan zion "Nor da Jangoikoa?" ta "Izan littekeen izakirik bikaiñena, zeru-lurren egillea ta jabe onari betiko zoriona ta gaiztoari betiko zoritxarra emango dion jauna da Jangoikoa" esan nion. "Bai, bai, bai", maestrak. "Ta?" apaizai esan zion, "Ta?", "Ba, komulgatuko det. Komulgatuko det". Ta komulgatu giñutzen ta akabo. Gauzak nola izaten dien, e?

**3. Euskara garbiko dotrinak zaharra ordezkatu**

- **Erref:** TOL-014/007
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:14:04. **Bukatu:** 00:15:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

**Laburpena:**

<p>Martinek dio eskandalu edo eztabaida handiak izan zirela bi dotrinak zirela eta. Maistrak zaharra bakarrik zekien, euskara-erdara nahasturikoa, baina apaizak berria, euskara garbikoa, ezarri zuen.</p>

**Transkripzioa**

- Zuek bi dotriña ikasten zenituen?  
- Bi, bi. Bai. Bi. Aurrena aurrena esan dean hoi, erdi euskera erdi erderaz ateratako dotriña. Ez dakit noiz ateraria izango zan hoi. Lehengo zea zaharren ateratakoa. Ta gero, berrittu zan garaien, horrekin eskandalo haundie izan gendun.  
- A bai?

- Bai! Horrekin [arazo] haundie izan zan.  
 - Zer ba?  
 - Batzuk danak utzita bat´e... bat´ e... utzi ta bat´e ikasi [gabe] geratutakok bazien, ez zeola ikasteik eta.  
 - Zuek aurrena hasi ziñaten dotriña zaharra ikasten?  
 - Zaharra, bai, zaharretikan.  
 - Eta halako baten, apaizak erabaki zun dotriña aldatzia?  
 - Bai, han erabaki zuen dotriña berrie zertzea, ateratzea, ikastea. Eta ordun, maestrak´e lehengo zahar hure bazekin memoriz dena, dena o ondo [...], baiño harek´e berriik ez zekin. Eta berri hure ikasteko, ba, jun behar gendun apaizangana ta harrek jartzen zigun [egunero] dotriñe. Liburu hure hartu ta handik ikasi ta zertzeko. Hoik danak hola eman giñun. Ez dakit xuxen-xuxen esango dittuan, baiño hoik hala die. Hoik halaxe die gauzak, bai.  
 - Eta zeuek zeuen liburua bazenduen dotriñana?  
 - Bai, bai, bai.  
 - Ordun, bi euki zenituen zuek?  
 - Bai, bai, bi eukitzen giñun, bai. Nik etxen hantxe nun ta han geratu zan. Han ez dakit ze ingo zuen handi aurrera. Gero iñok ikasi zun o ze in zuen ez dakit. Ilobak-eta bazien, baiño ez dakit ikasi zuen.

#### 4. Fraideei ogia lapurtu labetik

- **Erref:** TOL-014/010
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

#### Laburpena:

<p>Arabako Valdegobiara (Gaubea) joan ziren lanera komentu batera. Ogia fraideei labetik lapurtu eta nola jan zuten kontatzen du.</p>

#### Transkripzioa

- Arabaa jun giñen, valle Valdegovía. Araban azken-azkeneko barrioa da.  
 - Baiño harea... Baiño zuek fabrikan iten zenduenen Patrizio Etxeberriaren lana, nun iten zenduen lo ta jan ta hoi dana?  
 - Guk ba... jartzen ziun, konparazio batea, beira, esango dizut, gaur jartzen digu /jartzeiu/ Oiartzunen lana, ezta? Beno, esango dut /esangout/. "Oiartzunen daukezue lana". Oiartzunea jun ta holako lekutan bazkarie daukezue, ta holako tokitan afarie daukezue, ta holako lekutan lotako lekue daukezue jarrie.  
 - A! Egokitzen ziñeten...  
 - Bai, egokitzen zan tokin.  
 - Eta bitarten ze lan in behar izaten zenduen?  
 - Han itten gendun, ba, esaten dana, liburuk-eta jartzeko, liburuk-eta beren lekutan bilduta-ta jartzeko, lekuk-eta jartzeko, arotzai lagunduko ziozun... "Carpintero". E? Arotzai lagunduko ziozun batzutan, ta besteai, berriz, hargiñe izaten zan. Hargiñe izaten zan, ba, "albañil" o zea. Harrek eramaten zun eskuzko lana zea itten eta gero arotzak eramaten zun atzeko lana gauzak-eta kolokatzeko. Hori izaten zan. Bueno. Valle de Valdegovía. Bai, guk... Han´e fraileri ogia lapurtu nien.  
 - Nola?

- Jesuuss! Gosek genden ba. Lau motil genden, lau motil giñen. Zer da ta behera, sartu nitzen hola behe xamarrean ta etxen... Kolegioa aparte zeon, baiño zeuzken behiek, zeuzken oillok, zeuzken txerriik, zeuzken patok eta danak errekan ondon, beren ikuilluekin, gauzekin-ta jarri ta han zeuzken. Ta, ba, esan nun: "Hemen, kasuen sos, hemen zerbaitt´e hola..." ta. Hala, labe haundi bat zeon ta ni labea leheno´re ikusita neon, labek ikusita neon hola. Ta hoi baiño pixka-pixkat lodixeoko tubo baten batzutan kea ateratzen zan behetik gora. "Hor, hor badek zerbaitt´e" esaten nun, "Hor ogie erretzen egongo dek /egongok/". Hala, goitik behera saltatu nitzen ta behera jun ta, labea, atea ireki nion, eta "dak" eta bi ogi zeren. Zeatik izango zien han sartu zienak hogeta hamar bat igual sartuko zittuen, hola, haundiek. Haundiek ez, baiño zeak zien. Eta gero baxtarren-eta izaten dienak ez die behar bezela erretzen, erdi aldera beroangana bildu ber. Eta ondo erreta zerenak, behar bezela erreta zerenak, atera ta haik han utzita zeren erretzeko. Ta "Bai? Ez [ete dik] dana jan behar?" ta nik hartu bat eta eraman niñun. Ta laguneri esan nien: "Hi, ogie ekarri dit hola ta jan behar diu hola". Ta bat guk baiño gehixo aintzen zuna bagendun lautatikan bat, Joxe Manuel [Ibarluzea] zan haure, mutilla, bai. Hure gu baiño arreraxeo zeon, harek zertzen giñon, bakarren bat behar izaten da ta. Hala, "Mmmm..." esaten zin "Ez zekit...". Hala, dana jan gendun. Dana jan gendun ta hala pasa giñen. Iñok ez zun ezertxo´re esan ta ondo.

## 5. Martinek ogia lapurtu zuena bera izan zela aitortu

- **Erref:** TOL-014/012
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:32:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

<p>Behin, bi ogi harrapatu zituen baten orde. Fraideak konturatu, galdeketa egin eta Martinek berak lapurtu zituela aitortu zuen. Fraide euskaldunaren barreak. Martinek ez zekien erdaraz garai hartan.</p>

### Transkripzioa

- Hala, etorri zien bi gizon hoik...  
- Egon e. Ahaztu zait nun genbiltzan. A! Zuek fraileei ya lehenengo egunen ogi bat lapurtu, hurrengon bi...  
- Hurrengon bi, bai, hurrengon bi. Valle de Valdegovía zan hoi, e? Arabako zea zan hoi, Angosto. Hala. Bai. Bale. Hurrengon bi eraman nittun. Ta geo, etorri zien bi apaiz, bi fraile etorri zien. Lanen ari giñen tokira, [aizu], izenez deitzen [...]: "Aizu, etorri honeaiño". Ta aurrena buru itten zuna o pixkat zeatzen zuna hari deittu ziu. Ta bueno. Esan nun "Ño!Arrazoi txarren bat badiu". Hala, behera jeitsi zan hure. Harrekin hizketan nabillela, euskeraz-erderaz bietara iten zun harrek, ta hola ta hola [...]. Harek ez zekila ezer, harek ez zekila ezer, harek ez zula zeatu [...] eta hola ta. Bueno. Besteei galdetzeko harri galdetu zien bezela ta zer esaten zien. Ta hola. Hure jun zan ta hurruna nei, "Martin etorri!". Esan ziten, "Beira — lagunek esan ziten—, oain hiri deittuko die ta eorrek jakingo dek ze esan behar dieken. Galdetzen diken garaien eorrek jakingo dek ze erantzun behar deken", "Bai, nik pentsatuta zeukeat" esan nion, "A, beno, hobeto

ordun” esan ziten. Hala jun nitzen. Ta “dak” eta jarri nitzen han. Bat alde bateti ta bestea besteti, ta ni oain naun bezela, zure aurren. Han jarri nitzen bin aurren, holaxe. Ta, bueno. Ta, bai, nola ogiik faltatu zaizkien eta... erreka haundi bat zeon han ta handikan pasatuta-eo bakarren batek gauen-eo zertuta, sartuta-eo harrapatu zittun eo zean ta... Ez zekiela, ta gauzek... gu giñen eo ez giñen jakin in behar ziela, gauzek jakin in behar ziela ta hola ta hola ta... Esan nion, esan nun: “Ez euki iñon zeaik. Iñon errezelo txarrik ez euki — esan nien hola—, ogiik harrapatu dittuna ni naiz” esan nien. Uuu... mekauen sos, hola. Kastillanoa hure, hola; entenditu zun nahi beste harek. Esaten zian: “¿Todavía tienes valor? ¿Todavía tienes valor para decir eso?” esan ziten hola, “Pues —esan emen nion —, pues, señor, el hambre no tiene límite” esan emen nion. Ez dakit hala esan nion! Hala, behintzat. Hasten da /hastea/ euskaldune parrez! Bestea serio ta... Gero, bueno.

## 6. Txahal bikiak erditzen lagundu

- **Erref:** TOL-014/014
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:37:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Valdegobiako (Gaubea) komentuan (Angoston) lanean ari zirela, behi bat erditu ezinik ikusi zuen. Bikiak zekartzan, eta Martinek lagundu zien jaiotzen. Fraideek, esker onez, hamarretako ederra eman zioten. Handik aurrera, jaun eta jabe izan zen.

## 7. Gerra hasiera Bedaion

- **Erref:** TOL-014/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

### Laburpena:

Gerra sortu zenean, soldadu joandako herriko hiru mutil baimenarekin zeuden etxean. Gerra hasiera kontaktzen du. Bedaio Nafarroako mugan dago, eta atzeko mendian zuten frontea gerra hasieratik.

## 8. Mutrikuko Kondeak Nafarroara ihesi gerra denboran

- **Erref:** TOL-014/019
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ihes egin beharra](#)

#### **Laburpena:**

Gerra sortu berrian, ardiekin mendian zebilela, galdutako bi gizon aurkitu zituen, bat zaurituta. Bedaiora zuzendu zituen. Zauritua astoan hartuta pasatu omen zuten Nafarroara. Mutrikuko Kondeak omen ziren, errepublikaren lurraldetik Francok hartutakoetara ihesi zihoazenak.

### **9. Bonbaz zamatutako hegazkinak Bedaioko zeruan**

- **Erref:** TOL-014/021
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

#### **Laburpena:**

<p>Bonbardatzera zihoazen hiru abioi ikusi zituen Martinek. Beasain, Tolosa eta Hernanin bota omen zituzten bonbak. Beldur handia pasatzen zuten, eta behi-asken azpian-eta ezkutatzen ziren.</p>

#### **Transkripzioa**

<p>- Abionak ikusi nittun, hiru abion ikusi nittun nik: bat honea aldea sartu zan, Zaldibi aldea o alderdi hontaa. Oain, hemen Beasaingo hontan bota emen zittula esaten due /esateue/, bat. Beste horrek behintzat Tolosan bota zittun. Ta bestea, berriz, beheran esaten due, Hernanin o&hellip; zittun&hellip; bota zittula esaten due. Bai. Hiru abionak ikusi nittun, geldi-geldi nola etortzen zien. Haik Iru&ntilde;an kargatzen zien, Panplonan. Panplonan kargatu ta honea etorri, [&hellip;] sartzen zien. Aralarko gain hortatikan barrena taka ta bor-bor-bor-bor. &ldquo;Hemen dittuk! Hemen dittuk&rdquo; eta&hellip; Zea, behiek-eta ikuillun, zea, ganbelak-eta nola izaten dittuen? Hain azpia sartuta-ta jendea gordetzen ta&hellip; bai, joe&hellip; bestela badakizu zea hue&hellip; sartu ta lehertzen zan tokin garbittuk&acute;e bazien! Zea, bai, bazien ta buu.</p>

<p>- Eta zuek sekula ikusi al zenduen abionik hoi bai&ntilde;o lehen?</p>

<p>- Zer?</p>

<p>- Sekula abionik ikusi gabek izango zi&ntilde;aten zuek.</p>

<p>- Abiona ikusi gendun, bai&ntilde;o zea bakarrik&hellip; lehentxiotik ikusi nun nik abiona, bai, lehentxiotik. Bai&ntilde;o&hellip;</p>

### **10. Hemengo gerra "zikina": anaiak anaien aurka**

- **Erref:** TOL-014/023
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:53:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Jarrera politikoak](#) » [Liskarrak politikan](#)

#### **Laburpena:**

Hemengo gerra hori "zikina" izan omen zen: anaiak anaien aurka. Gogoan du nola ibiltzen zen botazio egunean, mahaien inguruan partiduen txartelak-eta ipintzen.

## 11. Ugazabak agindutakoari eman behar botoa maizterrak

- **Erref:** TOL-014/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:58:20. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
- Politika » Jarrera politikoak

### Laburpena:

Bedaïotar denak joaten omen ziren botoa ematera. Maizterrak denak, Segurako Markesa eta Elosegi ziren ugazabak, eta haiek agindutakoari eman behar botoa. Elosegi karlista zen. Bijilantzia eta presioa ikaragarria zen.

## 12. Monarkia umetan, monarkia zaharretan

- **Erref:** TOL-014/027
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:00:26. **Bukatu:** 01:03:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

### Laburpena:

Karlisten aldeko botoa omen zen nagusi garai batean Bedaion. Baina nazionalistak indartzen ari ziren leku guztietan gerra sortu zenean. Monarkia eta Errepublikaren arteko gatazka. Txikitan monarkia ezagutu zuen eta zaharretan ere bai.

## 13. Ondarretako kartzelara esnea eramaten

- **Erref:** TOL-014/028
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:03:26. **Bukatu:** 01:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

### Laburpena:

Bedaïoiko hainbat gizon eraman zituzten Ondarretako espetxera gerra garaian. Martin morroi egon zen Benta Berriko baserri batean eta kartzelara joan ohi zen esnea eramatera.

## 14. Inbidiak indarra hartu gerra ondoren

- **Erref:** TOL-014/030
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:09:10. **Bukatu:** 01:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena:**

<p>Denak berdintsu janzten omen ziren gerra etorri arte. Gero inbidiak handitu egin omen ziren.</p>

**15. Etxalarren tripa-truke lanean**

- **Erref:** TOL-014/032
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:12:55. **Bukatu:** 01:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena:**

Etxalarren soldadu, zegoela garoa biltzen-eta laguntzen zien familia bati tripa-truke. Bigarren egunean urdaiazpiko ogitarteko ederra oparitu zion hango neskak, gero bere kapitainari emango ziona.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-09*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com